



DORRE BARRIAK

san mames ingurua

DORRE BARRIAKEKO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN KOOPERATIBETAKO BAZKIDEAK IZENDATZEKO ZOZKETAREN OINARRIAK

[Bilboko José Antonio Isusi Ezcurdia notarioaren esku utzita gordaila ditzan]

DORRE BARRIAK 1, S. KOOP., DORRE BARRIAK 2, S. KOOP., DORRE BARRIAK 4, S. KOOP eta DORRE BARRIAK 6, S. KOOP. izeneko etxebizitza-kooperatibek (“**Kooperatibak**” batera) aurreikusita daukate Autonomia Erkidegoko Babes Ofizialeko 318 etxebizitza sustatzea Garellanoko Hiri Berrikuntzarako Plan Bereziko (HBPBko) 01, 02, 04 eta 06 partzeletan (Bilbo), haiei lotutako elementuekin batera (garajea eta trastelekua), bai eta zenbait elementu libre ere.

Horretarako, harpidetze-epe bat izan da, 2012ko uztailaren 13an amaitu zena, Kooperatibetako kide eta, horrenbestez, etxebizitzetako baten, hari lotutako elementuen eta aurrez aipatutako beste elementu osagarri batzuen jabetzaren esleipenduna izan ahal izateko interesa zuten pertsonak beren onarpen-eskaerak aurkez zituzten.

Jasotako onarpen-eskaerak Kooperatibek sustatutako etxebizitzak baino gehiago izan direnez (gordetako etxebizitzak kontuan hartuta, zeinak geroago aipatuko diren), eta aplikatzekoa den araudian aurreikusitakoaren arabera, 2012ko uztailaren 21ean zozketa bat egingo da notario aurrean, esleipendunen zerrenda eta haiei dagokien itxaron-zerrenda sortzeko (“Zozketa”).

Dokumentu honen xedea da finkatzea nola eta zer baldintzatan egingo den kide kooperatibisten izendapena eta nola eta zer baldintzatan sartuko diren kooperatibetan, indarreko araudian galdagarriak diren printzipio hauek betetzeko: publikitatea, lehia publikoa eta gardentasuna.

Kideei egokitu zaizkien etxebizitzaren esleipena, hala nola haiei lotutako elementuena (garajea eta trastelekua) eta garaje osagarriena, halaber, kide kooperatibisten artean zozketa bat eginez gauzatuko da, kide horiek Kooperatibei eransteko kontratu egokiak formalizatu eta Kooperatiben biltzarretan onartutako ekarpenak egin ondoren.

Etxebizitzak esleitzeko zozketa egiteko (hasiera batean, eta aldaketa gerta badaiteke ere, 2012ko irailean egitea dago aurreikusita), etxebizitzak kide kooperatibisten artean esleitzeko aipatu zozketarako oinarriak prestatu eta onartuko dira, eta kideen eskura jarriko, zozketa zer egunetan egitea dagoen aurreikusita adieraziz.

I. ZOZKETARAKO PLAZAK – ETXEBIZITZA ERABILGARRIEN IDENTIFIKAZIOA

Kooperatibek ondoren adierazten diren etxebizitzak egitea daukate aurreikusita, eta etxebizitza horien kopurua izango da, gordetako etxebizitzak kendu ondoren, kideak izendatzeko zozketarako Kooperatibetako kide izan ahal izateko erabilgarri egongo den plaza-kopurua.



- 01 partzela - Dorre Barriak 1, S. Koop.

01 partzelan garatu beharreko sustapenaren barruan, autonomia-erkidegoko araubide orokorreko babes ofizialeko 126 etxebizitza egongo dira.

a) Ezaugarriak: 2 eta 3 logelako etxebizitzak.

- Hari lotutako elementuak: garaje-plaza bat eta trasteleku bat.
- Beste elementu libreak: kide kooperatibista bakoitza beste garaje-plaza baten esleipenduna izango da.
- Horrez gain, titular bakoitzak kooperatibak sustatuko dituen beste 70 garaje-plaza libreen partaidetza zatiezina izango du, gainerako kide kooperatibistekin batera, baldin eta, aurrez, plaza horiek ez badira kide kooperatibisten artean esleitzen edo kooperatibatik kanpo dauden pertsonen besterentzen.

b) Erreserbak: Adierazitako 126 etxebizitza horietatik, mugitzeko gaitasuna modu iraunkorrean murriztuta duten pertsonentzat gordeko dira 6 etxebizitza.

- 02 partzela - Dorre Barriak 2, S. Koop.

02 partzelan garatu beharreko sustapenaren barruan, autonomia-erkidegoko araubide orokorreko babes ofizialeko 48 etxebizitza egongo dira.

a) Ezaugarriak: 2 eta 3 logelako etxebizitzak.

- Hari lotutako elementuak: garaje-plaza bat eta trasteleku bat.
- Beste elementu libreak: kide kooperatibista bakoitza beste garaje-plaza baten esleipenduna izango da.
- Horrez gain, titular bakoitzak kooperatibak sustatuko dituen beste 27 garaje-plaza libreen partaidetza zatiezina izango du, gainerako kide kooperatibistekin batera, baldin eta, aurrez, plaza horiek ez badira kide kooperatibisten artean esleitzen edo kooperatibatik kanpo dauden pertsonen besterentzen.

b) Erreserbak: 48 etxebizitzetatik, 2 etxebizitza murriztutako mugikortasun iraunkorra duten pertsonentzat gordeko dira, eta etxebizitza bat kide sustatzaileen artean esleitzeko gordeko da.

- 04 partzela - Dorre Barriak 4, S. Koop.

04 partzelan garatu beharreko sustapenaren barruan, autonomia-erkidegoko araubide orokorreko babes ofizialeko 72 etxebizitza egongo dira.



a) Ezaugarriak: 2 eta 3 logelako etxebizitzak.

- Hari lotutako elementuak: garaje-plaza bat eta trasteleku bat.
- Beste elementu libreak: kide kooperatibista bakoitza beste garaje-plaza baten esleipenduna izango da.
- Horrez gain, titular bakoitzak kooperatibak sustatuko dituen beste 39 garaje-plaza libreen partaidetza zatiezina izango du, gainerako kide kooperatibistekin batera, baldin eta, aurrez, plaza horiek ez badira kide kooperatibisten artean esleitzen edo kooperatibatik kanpo dauden pertsoneri besterentzen.

b) Erreserbak: 72 etxebizitzetatik, 3 etxebizitza murriztutako mugikortasun iraunkorra duten pertsonentzat gordeko dira, eta etxebizitza bat kide sustatzaileen artean esleitzeko gordeko da.

- 06 partzela - Dorre Barriak 6, S. Koop.

06 partzelan garatu beharreko sustapenaren barruan, autonomia-erkidegoko araubide orokorreko babes ofizialeko 72 etxebizitza egongo dira.

a) Ezaugarriak: 2 eta 3 logelako etxebizitzak.

- Hari lotutako elementuak: garaje-plaza bat eta trasteleku bat.
- Beste elementu libreak: kide kooperatibista bakoitza beste garaje-plaza baten esleipenduna izango da.
- Horrez gain, titular bakoitzak kooperatibak sustatuko dituen beste 39 garaje-plaza libreen partaidetza zatiezina izango du, gainerako kide kooperatibistekin batera, baldin eta, aurrez, plaza horiek ez badira kide kooperatibisten artean esleitzen edo kooperatibatik kanpo dauden pertsoneri besterentzen.

b) Erreserbak: Adierazitako 72 etxebizitza horietatik, mugitzeko gaitasuna modu iraunkorren murriztuta duten pertsonentzat gordeko dira 3 etxebizitza.

Etxebizitzan eta haiei lotutako elementuen ezaugarri orokorrak eta amaierako prezioa zehazteko, aintzat hartuko dira autonomia-erkidegoko araubide orokorreko babes ofizialen ezaugarriak eta arauak. Zehazki, behin-behineko kalifikazioa eskatzean indarrean daudenak izango dira.

Aurrekoaren arabera, beraz, honela multzoka daitezke Kooperatibetako kide izan ahal izateko hasiera batean erabilgarri egongo diren eta, zozketa egiteari begira, kontuan hartuko diren plazak:

- Zozketan sartuko ez diren gordetako plazak: 2
- Murriztutako mugikortasun iraunkorra duten pertsonentzako plazak: 14
- Plaza libreak: 302



II. ESKATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Kooperatibetako kide izan ahal izateko eta, horrenbestez, zozketan parte hartu ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Autonomia-erkidegoko araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzetan sartzeko baldintzak; baldintza horiek aplikatzekoa den araudian (39/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, Eusko Jaurlaritzarena) eta hura osatzeko eta garatzeko gainerako arauetan daude adierazita.

Berariaz, Euskal Autonomia Erkidegoan babes ofizialeko etxebizitzaren gai-alorrean indarrean diren arauetako alderdi hauek bete behar dira: (i) urteko gutxieneko eta gehieneko diru-sarrerak, (ii) etxebizitzaren premia eta (iii) Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean erroldatuta egotea.

- b) Denborari eta formari dagokienez, ondo aurkeztea zozketa honetarako onarpen-eskaera egokia, eta gutxieneko derrigorrezko ekarpena ordaintzea (150 euro).

- c) Dokumentazio hau behar bezala aurkeztea denborari eta formari dagokienez:

- Onarpen-eskaera (datatua eta sinatua).
- NAREN fotokopia (bizikidetzaren unitateko kide guztiak).
- 2011ko errentaren aitortzea (bizikidetzaren unitateko kide guztiak).
- Azken hiru nominen fotokopia (bizikidetzaren unitateko kide guztiak).
- Katastroaren ziurtagiria eskatzeko baimena.
- 150 euro ordaindu izanaren egiaztagiria.
- Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egoteare ziurtagiria.
- Hala egokituz gero, murriztutako mugikortasun iraunkorra egiaztatzeko dokumentazioa.
- Lan-bizitza.

Kide kooperatibista izan nahi duen bakoitzak, aipatutako dokumentuak emateaz gain, adierazi beharko du bete egiten dituela aplikatzekoa den araudian eta dokumentu honetan Kooperatibetako kide izateko eta, horrenbestez, Kooperatibek sustatuko dituzten autonomia-erkidegoko araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzetako baten, haiei lotutako elementuen eta elementu librean esleipenduna izateko jarritako baldintzak.



III. ESKATZAILEEN ZERRENDA

Kideak harpidetzeko epea bukatu ondorengo egunetan, Kooperatibek aurkeztutako eskaerak aztertuko dituzte, eta eskaera behar bezala aurkeztu eta aurreko II. atalean azaldutako baldintza guztiak bete dituzten eskatzaileak Kooperatibek, zozketa egiteari begira, prestatuko dituzten eskatzaileen zerrendan azalduko dira.

Kooperatibek zenbaki bat egokituko diote eskatzaile horietako bakoitzari, eta horretarako irizpidea guztiz ausazkoa izango da. Zenbakiak izenaren arabera emango dira alfabetikoki ordenatuta. Eskatzaileen zerrenda, bakoitzari emandako zenbakia adierazita, Kooperatiben egoitza sozialean argitaratuko da 2012ko uztailaren 18tik aurrera.

Kontuan hartuta zenbat eskaera jaso diren, aurreikustekoa da zerrendan, azkenean, adierazitakoaren arabera, jasoko diren eskatzaileen kopurua handiagoa izango dela kide izan ahal izateko erabilgarri dauden plazen kopurua baino, aurreko I. atalean azaldutakoaren arabera erabilgarri dauden etxebizitzaren kopurua kontuan hartuta, eta, hala gertatuz gero, zerrendan sartutako eskatzaileen artean egingo da zozketa.

Baztertu eta Kooperatibak argitaratutako eskatzaileen zerrendan jaso gabeko onarpen-eskaerak, adierazitakoaren arabera, ez dira kontuan hartuko zozketa egiteko.

IV. ZOZKETA

Zozketa "Bilbao Arena" kirol-pabiloian egingo da notario aurrean, 2012ko uztailaren 21eko 10:00etan.

Zozketa egiteko eguna, lekua eta ordua, oinarri hauetan adierazita egoteaz gain, honela jakinaraziko zaizkie eskatzaileei: Kooperatiben web-orrian argitaratuz; Kooperatibetako iragarki-taulan argitaratuz; posta elektronikoen bidez, eskaeran horretarako helbide elektronikoa eman duten zerrendako eskatzaileen kasuan; eta posta bidez.

Zozketa ikusi nahi duten eskatzaileek horretarako aukera izango dute. Baina jende asko joatea espero denez, eskatzailearekin batera bi lagun baino ezingo dira sartu.

a) Zozketa plaza-tipologiaren arabera

Zein bere aldetik zozkatuko dira kide kooperatibista eta murriztutako mugikortasun iraunkorra dutenentzat gordetako etxebizitzaren esleipenduna izateko dauden plazak eta gainerako etxebizitzetarakoak.

Lehendabizi, murriztutako mugikortasun iraunkorra dutenentzat gordetako etxebizitzari dagozkien plazak eskura ditzaketen eskatzaileen arteko zozketa egingo da, eta gero gainerako plazetarako, eta bigarren horretan gordetako plazarik lortu ez duten aurreko zozketako eskatzaileek ere parte hartu ahal izango dute.

Murriztutako mugikortasun iraunkorra duten eskatzaile guztiak itxaron-zerrenda espezifiko bat osatuko dute ezaugarri horiek dituztenentzat gordetako etxebizitzari dagozkien plazak lortu ahal izateko, eta haietarako lehentasunari eutsiko diote, gordetako plaza horietako bat betetzeko hasiera batean izendatutako kide kooperatibista baten baja edo ukoa gertatuz gero.



Murriztutako mugikortasun iraunkorra duen eskatzaile bat aukeratzen badute kide kooperatibista eta gorde gabe zegoen etxebizitza baten esleipenduna izateko, uko egin ahal izango dio izendapenari, eta berariaz sortutako itxaron-zerrendan jarraitu ahal izango du, gordetako plazak eskuratu ahal izateaz adierazitakoaren arabera.

b) Kooperatibetako plazen zozketa

Ordena honetan zozkatuko dira kide kooperatibista izendatua izateko plazak:

- 1.- Mugikortasun murriztua duten pertsonentzat gordetako plazen zozketa.
- 2.- 120 plaza Dorre Barriak 1, S. Koop. Kooperatibarako.
- 3.- 45 plaza Dorre Barriak 2, S. Koop. Kooperatibarako.
- 4.- 68 plaza erabilgarri Dorre Barriak 4, S. Kooperatiborako.
- 5.- 69 plaza Dorre Barriak 6, S. Koop. Kooperatibarako.

Mugikortasun murriztua duten pertsonentzat gordetako plazen zozketan, prozedura hau erabiliko da:

Murriztutako mugikortasuna duten eskatzaileei egokitutako zenbakiak ontzi batean sartuko dira, eta haien zozketako kooperatibetako plazak beste batean.

Zozketa egiteko, bola bat aterako da kooperatibetan gordeta dauden plazen ontzitik, eta beste bat zenbakiak dituenetik, eta hala egingo da hurrenez hurren, gordetako plazen zozketa bukatu arte.

Gordetako plazen kopurua murriztutako mugikortasuna duten eskatzaileena baino handiagoa bada, sobera dauden plaza horiek gero egingo den zozketatik kanpo geldituko dira, beharrezkoa izango baita haien deskalifikazioa tramitatzea Lurraldeko Etxebizitza Ordezkaritzan.

Bestela, eta aurreko atalean adierazitakoari jarraiki, murriztutako mugikortasuna duten eskatzaileek plaza librean zozketan parte hartuko dute; horretarako, dagozkien zenbakiak eskatzaileei esleitutako zenbakien ontzian sartuko dira.

Adibidez:

	<i>Murriztutako mugikortasuna duten eskatzaileen ontzitik ateratako bola</i>	<i>Kooperatibako kideen ontzitik ateratako bola</i>	<i>Emaitza</i>
	<i>56 zk.ko bola</i>	<i>4 zk.ko bola</i>	<i>56 zenbakia duen mugikortasun murriztutako eskatzaileari kide-plaza bat egokitu zaio Dorre Barriak 4, S. Kooperatiboan.</i>
<i>2º</i>	<i>31 zk.ko bola</i>	<i>1 zk.ko bola</i>	<i>31 zenbakia duen mugikortasun murriztutako eskatzaileari kide-plaza bat egokitu zaio Dorre Barriak 1, S. Kooperatiboan.</i>
	<i>"X" zk.ko bola</i>	<i>"Y" zk.ko bola</i>	<i>"X" zenbakia duen mugikortasun murriztutako eskatzaileari kide-plaza bat egokitu zaio Dorre Barriak "Y", S. Kooperatiboan.</i>



Alde horretatik, gordetako plazen zozketaren ondoren, plaza libreen zozketa egingo da, lehen adierazitako ordenan, eta, horretarako, prozedura hau erabiliko da:

Kooperatibek argitaratutako zerrendako eskatzaileei emandako zenbaki guztiak ontzi batean sartuko dira (gordetako plaza baterakoak izan ezik), eta beharrezko zenbaki guztiak aterako dira, kooperatiba bakoitzeko plaza guztiak eskatzaileei esleitzeko.

Kooperatiba bakoitzeko plazen esleipena bukatu ondoren, atsedenaldi txikia egingo da, eta gero zozketarekin jarraituko da, hurrengo kooperatibako plazak esleitzeko esandako ordenaren arabera. Prozedura hori behin eta berriz egingo da, zozketan sartutako lau Kooperatibetan eskuragarri dauden plaza guztiak bete arte.

Ejemplo:

	<i>Eskatzaileen ontzitik ateratako bola</i>	<i>Emaitza</i>
<i>Sorteo plazas Dorre Barriak 1, S.Coop.</i>		
1	235zk.ko bola	235 zenbakia duen eskatzaileari kide-plaza bat egokitu zaio Dorre Barriak 3, S. Kooperatiboan.
2	12 zk.ko bola	12 zenbakia duen eskatzaileari kide-plaza bat egokitu zaio Dorre Barriak 3, S. Kooperatiboan.
(•••)		
129	"X" zk.ko bola	"X" zenbakia duen eskatzaileari kide-plaza bat egokitu zaio Dorre Barriak 3, S. Kooperatiboan.
<i>Atsedenaldi laburra</i>		
.		
1	478 zk.ko bola	478 zenbakia duen eskatzaileari kide-plaza bat egokitu zaio Dorre Barriak 5B, S. Kooperatiboan.
2	193 zk.ko bola	193 zenbakia duen eskatzaileari kide-plaza bat egokitu zaio Dorre Barriak 2, S. Kooperatiboan.
(•••)		
45	"X" zk.ko bola	"X" zenbakia duen eskatzaileari kide-plaza bat egokitu zaio Dorre Barriak 2, S. Kooperatiboan.
<i>Atsedenaldi laburra</i>		
(•••)		

Kooperatibetako plazak betetzeko behar adina kide esleipendun aukeratu ondoren, itxaron-zerrendak egingo dira. Zerrendetako bat berariazkoa izango da gordetako plazetarako, eta, mugikortasun murriztua dutenen artean, gordetako plaza baterako aukeratuak izan ez diren eskatzaileek osatuko dute; hori egin ondoren, plaza libreterako itxaron-zerrenda orokorra egingo da.



Itxaron-zerrendak egiteko, zenbaki bat aterako da eskatzaileei egokitutako zenbakiak dauden ontzitik, eta zenbaki hori itxaron-zerrendako lehen pertsonari egokituko zaio.

Gero, beste bola bat aterako da 1, 2.... edo 10 zenbakia izango duten 10 bola gordeko dituen ontzi batetik. Zenbaki hori kadentzia izango da; hau da, zenbaki hori itxaron-zerrendako lehen zenbakitik batuta, itxaron-zerrendan egongo diren gainerakoak zehaztuko dira.

Itxaron-zerrendako lehen pertsonaren zenbakia + 10 bolako ontziko zk.a = itxaron-zerrendako 2.a; itxaron-zerrendako 2.a + kadentzia = itxaron-zerrendako 3.a; itxaron-zerrendako 3.a + kadentzia = itxaron-zerrendako 4.a; etab.

Kadentzia erabiltzeari dagokionez, zozketan zehar atera direlako ezin balia daitezkeen zenbakiak baztertuko dira:

Adibidez:

*Itxaron-zerrendako lehen kidearen zenbakia: 231. zk.ko bola (eskatzaileen ontzitik aterata)
Kadentzia: 2 zk.ko bola (kadentzia-bolen ontzitik aterata) 231. zk. duen eskatzaileak lehena izango da itxaron-zerrendan; 233. zk. duen eskatzaileak (231+2), itxaron-zerrendako 2.a.*

Adibidez, 234. zenbakia ez badago, hurrengo zenbakira pasatuko da, 236. zenbakira; azken zenbaki hori 3.a izango da itxaron-zerrendan; 238. zenbakia duen eskatzailea, 4.a izango da itxaron-zerrendan...

(...)

Zozketaren emaitza bertan egongo den notarioak egingo duen notario-aktan jasoko da, Lurraldeko Etxebizitza Ordezkaritzari jakinaraziko zaio, eta Kooperatiben iragarki-taulan eta web-orrian argitaratuko da.

V. PARTAIDETZA-KONTRATUEN FORMALIZAZIOA

Zozketa egin ondoren, Kooperatibetan plaza bat egokitu zaien eskatzaileek Kooperatibei eransteko kasuan kasuko kontratuak formalizatu beharko dituzte, eta Kooperatibetako biltzarretan onartutako ekarpen ekonomikoak egin (11.000 euro kide bakoitzeko). Zenbateko horrek ez dauka zerikusirik aukeratutako eskatzaileek kooperatiban sartzeko eskaera aurkezten dutenean ordaindu behar dituzten 150 euroekin, sarrerako kuota moduan hartuko baitira.

Zozketan aukeratutako eskatzaileek Kooperatibek zozketaren emaitza jakinarazi eta hurrengo hamabost (15) egun naturalen barruan formalizatu beharko dituzte atxikitze-kontratuak.

Partaidetza-kontratua formalizatzeko, nahitaezkoa izango da kide izendatutako eskatzaileak Kooperatibei lehen aipatutako ekarpenak egitea aldeztu aurretik.

Zozketa egin ondoren, hura egin den leku berean guzuzen bat prestatuko da, plaza egokitu zaien eskatzaileek berrets dezaten bazkide izendatu dituztela zozketan, eta informazio gehiago jaso dezaten apartaidetza-kontratuak adierazitako epean formalizatzeko.

Gainera, zozketan plaza bat egokitu baina hori adierazi bezala berresten ez dutenei zein izan den emaitza esango diete Kooperatibek, bai eta hamabost (15) egun naturaleko epea dutela



ere Kooperatiben bulegoetara joan eta, ekarpenak egin ondoren, dagozkien atxikitze-kontratuak formalizatzeko.

Eskatzaile horiek ez badira agertzen partaidetza-kontratua sinatzeko aipatutako epean — hamabost (15) egun natural jakinarazpen/berrespenetik—, edo ez badituzte esandako ekarpenak ordaintzen epe hori bukatu baino lehen, horiek arrazoi nahikoa izango dira baliorik gabe uzteko ez-betetzea egin duen eskatzailearen kide-izendapena, eraginik gabe geratuko baita aldez aurretik jakinarazi behar izan gabe, eta guztiz eragotzita etxebizitza eta hari elementu libreak eskatzaileari esleitzea; izan ere, eskubidea automatikoki egokituko zaio kasuan kasuko itxaron-zerrendan lehen postuan dagoenari.

Aurreko ondorio horietarako, jakinarazpena egindakotzat hartuko da, baldin eta, eskatzaileak onarpen-eskaeran adierazitako helbidean jakinarazpena egun eta ordu desberdinetan egiteko bi (2) ahaleginetan huts egin ondoren, hura jaso gabe geratzen baita.

VI. NAHITAEZKO EKARPENA ITZULTZEA

Zozketan kide kooperatibista izendatu ez eta itxaron-zerrendetan sartuta geratzen diren eskatzaileek onarpen-eskaera aurkeztean egindako nahitaezko gutxieneko ekarpena (150 euro) berreskuratzeko eskubidea izango dute.

Kasu horretan, eskatzaile horiek itxaron-zerrendetatik kanpo geratuko dira ondorio guztietarako, eta ez dute inolako aukerarik izango kide kooperatibista eta, horrenbestez, Kooperatibek sustatutako etxebizitzaren esleipendun izendatuak izateko.

Beti ere, itxaron-zerrendak baliorik gabe geratuko dira, kideek beren etxebizitzaren esleipen-eskiriturak formalizatu ondoren, eta une horretan itzuliko zaizkie aipatutako 150 euroak lehenago eskatu ez dituzten eskatzaileei.

Era berean, 150 euro horiek itzuli egingo zaizkie Kooperatiben plaza bat egokitu arren atxikitze-kontratua formalizatu ez eta, dokumentu honetan adierazitakoaren arabera, eskubidea galtzen duten eskatzaileei.

VII. ESLEIPENDUNA IZATEKO ESKUBIDEA GALTZEA

Zozketan Kooperatibetako kide izendatutako eskatzaileek berriz egiaztatu beharko dute aurreko II. atalean adierazitako baldintzak betetzen dituztela, aplikagarriak izan beharko baitute haiei egokitutako etxebizitzaren esleipen-kontratua formalizatu bitartean, Kooperatibei atxikitze kasuan kasuko kontratua formalizatu ondoren.

Era berean, Kooperatibetako kide izendatutako eskatzaileek dokumentazio osagarri guztia eman beharko dute, hori egiteko eskatzen zaien unean eta moduan.

Betebehar horiek bete ezean, haien kide-izendapena eraginik gabe geratuko da, aldez aurretik eragin-galtze horren jakinarazpena egin behar izan gabe, eta horrek guztiz eragotziko du etxebizitza eta elementu libreak beren alde esleitzea; gainera, esleipen-eskubide hori kasuan kasuko itxaron-zerrendan lehen tokian dagoenaren esku geratuko da, eta azken hori, sartzeko eskatzen diren baldintzak bete ondoren, dagokion kooperatibako kide bihurtuko da.



VIII. KIDEAK IZENDATZEKO BESTE PROZESU BATZUETAN PARTE HARTZEA

Kooperatibek kideak harpidetzeko prozesua egin bitartean, DORRE BARRIAK 3, S. KOOP. eta DORRE BARRIAK 5B, S. KOOP. ("araubide tasatuko etxebizitzaren kooperatibak") izeneko etxebizitza-kooperatibek kideak harpidetzeko prozesua egin dute, aurreikusita baitute Garellanoko Hiri Berrikuntzarako Plan Bereziko P03 eta P05 partzeletan (Bilbo) araubide tasatuko babes ofizialeko 289 etxebizitza sustatzea, haiei lotutako elementuekin (trastelekua eta garaje-plaza).

Kooperatibetakoren batean kide izateko interesa duten pertsona batzuek aplikatzekoa den araudian jasotako baldintzak betetzen dituzte babes ofizialeko etxebizitza nahiz prezio tasatuko etxebizitza lortzeko prozesuan parte hartzeko, eta, horrenbestez, babes ofizialeko etxebizitzaren kooperatibetako kide nahiz prezio tasatuko etxebizitzaren kooperatibetako kide izateko onarpen-eskaera aurkeztu dute.

Babes ofizialeko etxebizitzaren kooperatibek ere daukate aurreikusita bazkideak izendatzeko prozesua zozketa bidez egitea, eta zozketa hori prezio tasatuko etxebizitzaren kooperatibaren zozketa dokumentu honetan araututa dagoen bezala gauzatzea.

Alde horretatik, esaten da babes ofizialeko etxebizitzaren kooperatibetako plazen zozketa prezio tasatuko etxebizitzaren kooperatibetako plazen zozketa baino lehenago egingo dela, eta, baldintzak betetzen dituztelako, babes ofizialeko etxebizitzaren kooperatibetan nahiz prezio tasatuko etxebizitzaren kooperatibetan onartuak izateko eskaera egin duten eskatzaileek bi zozketetan parte hartuko dutela.

Eskatzailearen bati babes ofizialeko etxebizitzaren kooperatiba baterako plaza egokitzen bazaio, eta aldi berean prezio tasatuko etxebizitzaren kooperatiba baterakoa, bi plaza horietako zein aukeratzeko duen jakinarazi beharko dio kooperatibari zozketaren emaitza argitaratu eta bost (5) egun naturaleko epean. Jakinarazpen hori kooperatibari esandako epe horretan igorri ezean, babes ofizialeko etxebizitzaren kooperatibako plazaren alde egiten duela ulertuko da.

Izendatutako kideak baztertutako plaza libre geratuko da, eta itxaron-zerrendako eskatzaileen artean esleitu ahal izango da.

Plazarik egokitu ez zaien eskatzaileak babes ofizialeko etxebizitzaren kooperatibetarako eta prezio tasatuko etxebizitzaren kooperatibetarako sortzen diren itxaron-zerrendetan sartuko dira.

IX. ARAUDI OSAGARRIA

Dokumentu honetan aurreikusita ez dagoenari dagokionez, EAEko babes ofizialeko etxebizitzari buruzko arauetan xedatutakoa aplikatuko da batez ere:

- 39/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua arloko finantza-neurriari buruzkoa.
- AGINDUA, 2008ko apirilaren 16koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzaren esleipen-prozedurei buruzkoa.
- Agindua, 2008ko apirilaren 16koa Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, etxebizitza premiaren inguruko egoerari buruzkoa.



DORRE BARRIAK
san mames ingurua

- Agindua, 2009ko otsailaren 12koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzaren diseinurako ordenantzak onartzen dituena.
- Agindua, 2010eko azaroaren 3koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioak zehazteari buruzkoa.

Sozietate kooperatiboek aplikatzekoa den indarreko araudiari eta sozietateen estatutuei jarraituko diete.

Bilbon, 2012ko uztailaren 13an